

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020-03-26an argitaratuta

Udal jabetzapeko edo ardulararitzapeko bideen aprobetxamendu berezirako udal  
Araudiaren aldaketa

Bermeoko Udalak, 2020ko urtarrilaren 31n izandako Osoko Bilkuran, Udal jabetzapeko edo ardulararitzapeko bideen aprobetxamendu berezirako udal Araudiaren aldaketa hasieraz onartzea ebatzi zen eta jendaurrean aurkezteko erabakia hartu zuen.

Izapide hori egin ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (30. zenbakia, 2020ko otsailaren 13koa) iragarkia argitaratuta, jendaurrean jarri eta 30 eguneko epean, ez da inolako alegaziorik egin.

Hori ikusita, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ordenantza hori behin betiko onartutzat jotzen da, hura argitara dadin.

**- UDAL JABETZAPEKO EDO ARDULARITZAPEKO BIDEEN APROBETXAMENDU  
BEREZIRAKO ARAUA -**

**1. Artikulua.- HELBURUA.-**

Udal honek, Toki Jaupidearen Oinarriak Arauzkotzeko, apirilaren 2ko 7/85 Legearen 25. artikuluan aurreikusitakoarekin, Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuaren eta honekin zerikusia duten gainontzeko legezko arau guztiekin bat, Udal jabetzapeko bideen erabilera arrunta berezia eta normala araupetzen ditu, berauetan ibiltzen diren pisu handiko ibilgailuen eraginez geratzen diren egoera txarra ekiditzeareen, batez ere lurra, egurra, apeak, lur mugimenduak, eskoilerak, zabortegeiak eta beste material batzuk garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuen eraginez.

**2. Artikulua.- EZARGUNEA.-**

Arau honek udalerrri osoan izango du indarra.

**3. Artikulua.- BAIMENA – LIZENTZIA.-**

Aurretiazko udal lizentzia lortzea beharrezkoa izango da, Udal titularitate edo administraziopeko bideak erabiltzeko.

Zuhaitzak aterako diran lurretako jabeak, edo haren orde, kontratariak edo garraiatzaileak eskatuko dau lizentzia.



AR-E 68/02-20

Datu honek agertuko dira eskarian:

- a) -Eskatzailea, kontrataria edo garraiatzailearen nortasun datuak.
- b) - Garraiketarako erabiltzen diren ibilgailuen datuak, matrikula, egingo den ostera kopurua, osterrako garraiatuko den zama zehastuz eta egingo den ibilbidea tokiko planoan adieraziz.
- c) - Garraiatuko den zamaren bolumena estereo edo metro kubikoetan.
- d) - Garraiketak hasiko eta amaituko diren egunak.
- e) - Materialea nonbait bilduko bada, non izango den.
- f) Materialearen jatorria dagoen mendiaren izena eta kokagunea, hala balitz, erreferentzia katastrala ere zehaztuz.
- g) Zuhaitzak edo zuhaztiak mozteko baimena, basoen arloaz arduratzen den agintariak emana (Bizkaiko Foru Aldundia, Urdaibai Erreserbako Patronatoa, eta abar).

#### **4.- Artikulua.- DEBEKATUAK.-**

Ezin da erabili:

- a) -Har ibilgailurik.
- b) - Katez elkar lotutako ibilgailurik.
- c) - Zolu gainean irristatzeko ibilgailurik.
- d) - Errodadura bandadun ibilgailurik.
- e) - Geihenezko orotarako pisua 26 tonakoa baina handiagoko ibilgailurik eta hiru baino ardatz gehiago duen kamioirik.
- f) - Ibilgailu astunen zirkulazioa, bereziki, lurra, egurra, apeak eta beste material batzuk garraiatzeko erabilitakoaren baimena ematea Udalaren esku geratzen da, beti ere, uneko eguraldiaren arabera.

#### **5. Artikulua.- ERABAKITZEKO EPEA.-**

Baimena eskuratzeko prozedurarako eperik luzeena aurreragoko 3. artikuluan zehaztutako betekizunekin egindako eskabidea egin eta 30 eguneko izango da, epe honen ondoren, inolako ebazpenik zehazten ez bada, baimena emandakotzat hartuko delarik.

#### **6. Artikulua.- LUZAPENA.-**

Baimenean zehaztutako egunerako aprobe txamendua oraindik amaitu ez bada, luzapena eskatu beharko da.

#### **7. Artikulua.- AGIRIAK ERAKUSTEA ETA ZAIN TZA.-**



AR-E 68/02-20

Garraiolariak, garraiaketari ekiten dion edozein unetan, baimena eman duen udal erabakiaren originala eta kopia eta prezio publikoa eta fidantzaren gordailua ordaindu direla era ikusten duten ordainketen egiaztagiriak erakutsi beharko ditu. Aipatutako udaltzain edo udal agintariei erakutsi beharko zaizkie, hauek hala agintzen duten guztian.

## 8. Artikulua.- FIDANTZA.-

Baimena eskatzen duenak, bide horreetan edo udal jabetzapeko beste edozein motako ondasunean erabiltzen hasi aurretik, fidantza bat ordaindu beharko du, bideok erabiltzeagatik eragin litzakeen kalteengatik.

Fidantza hau dirutan edo eragin litezkeen kalteengatik erantzungo lukeen banketxeko bermez egin ahal izango da. Era berean, Udalarekin konponbide hau eginez gero, fidantza aseguru polizaren bidez ere egin ahal izango da.

Iharduera horregaz beste batzuei eragin leitekieran kalteen erantzunkizun zibilarentzako, kontseziodunak daunak lizentziaz konponkoa izango da hau. Beharrezkoa balitz, jarri dan fidantza barruan sartzen ez diran kalteen polizako dirukopurua erabili daiteke Udalak.

Fidantza:

Ohiko aldia: Maiatzaren 1etik urriaren 31ra arte.

Fidantzaren kopurua, ondoren aipatzen diran zerrendatik zehaztuko dira:

- 1 m<sup>3</sup> = 1,5 estereo.

g) 1 m<sup>3</sup> ¼ = 2 estereo.

* 50raino:.....	812,50€
* 50 – 99 m <sup>3</sup> .....	1.320,50€
* 100 – 199 m <sup>3</sup> .....	1.825,50€
* 200 – 299 m <sup>3</sup> .....	2.335,50€
* 300 – 399 m <sup>3</sup> .....	2.840,50€
* 400 – 499 m <sup>3</sup> .....	3.350,00€
* 500 – 599 m <sup>3</sup> .....	3.855,00€
* 600 – 699 m <sup>3</sup> .....	4.360,00€
* 700 – 799 m <sup>3</sup> .....	4.870,00€
* 800 – 899 m <sup>3</sup> .....	5.375,00€
* 900 – 999 m <sup>3</sup> .....	5.880,00€
* 1000 – 1199 m <sup>3</sup> .....	6.390,00€
* 1200 – 1399 m <sup>3</sup> .....	7.850,00€
* 1400 – 1599 m <sup>3</sup> .....	8.500,00€
* 1600 – 1799 m <sup>3</sup> .....	9.300,00€



AR-E 68/02-20

- \* 1800 – 1999 m3..... 10.150,00€
- \* 2000 m3., baino gehiago.....12.500,00€

Negualdia: Azaroaren 1etik apirilaren 30era arte.

Negualdian, eska daitekeen fidantzaren zenbatekoa aurreko paragrafoan adierazitakoa izango da,% 25 handituta.

Aurreikusitako epeak bi aldietako hilabeteak hartzen baditu, negualdia osotzat hartuko da.

Bai ohiko aldian bai negualdian eska daitezkeen kopuruak handitu ahal izango dira, baimena emon baino lehen, gehiagotu izango leike, Udal Teknikariak emondako txostenaren arabera.

Mendi baterako ordaindutako fidantza ezin izango da beste baterako erabili, nahiz eta egurra mendi berberetik atera.

Fidantza itzultzeko prozeduran erantzuna berau eskatu eta hilabete orduko egingo da. Horretarako udal teknikari batek edo zinegotzi batek ikustatzeko bisita egingo du bidearen erabilera aurretik eta ostean, eta txostena egingo du landabidearen goerari eta eragindako kalteei buruz.

Txosten hori fidantza harri duenari helaraziko zaio, 15 eguneko epean egoki deritzon guztia alega dezan, eta ondoren Udalak diru hori bihurtu behar zaioan ala egindako okerrak konpontzeko erabiliko den erabakiko du.

Landabide beraren erabiltzaileak bat baino gehiago direnean eta egindako kalteak euretako bati bakarrik egotzi ezin zaizkionean, erantzukizunak erabiltzaile guztien artean banatuko dira garraiatutako materialen bolumenaren araberrako proportzioan.

Dena den, fidantzaren kopuru gutxienezkoa 812,50 eurotan finkatzen da ohiko aldian eta 1.015,62 eurotan negualdian.

## **9. Artikulua.- BIDEEN GARBIKETA.-**

Aprobetxamenduaz baliatzen direnek, edozein kasutan ere, bermatu egin beharko dute bideok edozein erabilgarritasunerako prest izango direla, aprobetxamendua irauten duen bitartean beharrezkoak izan litezkeen garbiketak eta konponketak eginez. Hala egiten ez bada, zeregin honetaz Udala bera arduratuko da, baina kostua haien kontura izanik.

Dena dela, aprobetxamenduaz baliatuko direnek, ahal duten guztia egin beharko dute bideotatiko zirkulazioarengan inolako kalterik ez eragiteko. Bideotan ezin izango da



AR-E 68/02-20

enborrik ez adarrik utzi. Gainera, ibilgailuek bideotan utzitako lurrak, harriak eta abar ere baztertu egin beharko dituzte bidetik segidan.

Materialaren karga aprobetxamenduaren terreno barruan egin beharko da, eta inoiz ere ez, udalaren errepide gainean.

#### **10. Artikulua.- TXOSTEN TEKNIKOAK.-**

Udal zerbitzu teknikoak ikuskaketak egingo dituzte eta bideon egoeraren berri emango dute, aprobetxamenduaren aurretik eta ostean dutena erkatuz. Txostenetan, argazkiak, agiri planimetrokoak, ikusentzutezkoak erabili daitezke lagungarri.

#### **11. Artikulua.- ZIGORRAK.-**

Udal baimena lortu barik landa bideetan zehar garrario astunak burutzeak egindako bidaia bakoitzeko 600,00 €-ko isuna ordaindu beharra ekarriko du.

#### **12. Artikulua.- KONPONKETA LANAK.-**

Txosten teknikoak ikusita, baimena eman zaionari, bideotan egin beharreko konponketen berri, hala balitz, emango zaio, lanok ekiteko epea era jakinaraziz. Epe hori bukatu ondoren konponketok egin izango ez balira, Udalak berak egingo dio zeregin honi haren kontura, kostua alde aurretik ezarritako fidantzak kenduko delarik. Fidantzako dirutza nahikoa izan ez balitz, falta den zenbateko guztia eskatuko da harik eta kalte guztiak ordaindu arte 9. artikuluko ezarritakoaren arabera, eta hori ezean, zuzenbidekoa danaren arabera.

Egindako kalteak konpontzezinak balira, hondadutako ondasunen edo egindako kalteen balioa ordainduko zaio Udalari.

Udal bide berberen aprobetxamenduaz aldi berean bat baino gehiago aprobetxatuz gero, kalterik balitz, erantzukizuna erabiltzaileen bidezko banaketa egingo da.

#### **13. Artikulua.- BITARTEKARITZA, ITUNEBIDEA ETA ARBITRAIA.-**

Kalteen edo konponketen balorazioa dela eta Udalaren eta erabiltzailearen artean ez balego adostasunik, bi alderdiok, horretarako ados jarrita, bitartekaritza, itunebide eta arbitraiazko auzitan sartu ahal izango dira, denal dela honetarako hitzarmena, itunea, adostasuna edo kontratua sinatu beharko dutelarik. Auziotatik sor litezkeen gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

#### **14. Artikulua.- BAJA AITORTZEA.-**



Aprobetxamendua amaitzen denean, interesatuak behartuta daude bajaren aitormena egitera. Berau, Udal Arduralaritzan bertan egingo da eta aurkezten den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

#### **15. Artikulua.- JABEAREN ERANTZUKIZUNA.-**

Garraitzen diren materialeen jabeak izango dira Arau honetan zehazten direnak betearazten arduratuko direnak.

#### **16. Artikulua.- HARROBIAK, MEHATZ IHARDUERAK ETA LURRAK LEKUZ ALDATZEA.**

Bideok harrobietako materialeak garraiatzeko edo lurrak lekuz aldatzeko erabiltzen badira, iharduera honetaz arduratzen diren enpresak izango dira bideen mantenimenduz ibilbide guztian arduratuko direnak.

Aldiz-aldika bideok ikustatu egingo dituzte udal zerbitzu teknikoak, eta ikusitako kalte guztiak aipatutako enpresa horien ordaindu beharko dituzte.

#### **17. Artikulua.- APROBETXAMENDUAREN EPEA.-**

Aprobetxamenduaren epea, urteko Maiatzatik Urria arte, biak barne, finkatzen da.

Salbuespenez, klima baldintzen arabera, Udalak baimena ahal izango dute debekaturik dagoen hiletan bideak erabiltzeko edo erabil daitezkeen hiletan erabiltzea galarazteko.

Bermeon, 2020ko martxoaren 17an  
Alkatea  
Aritz Abaroa Cantuariense



AR-E 68/02-20



AR-E 68/02-20